

FEDERIKO KRUTWIG SAGREDO.—*Mystagintza zaharra* (Belatzen baratza saila). Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1982.

Parados deritzan lehen kapitulua otoitz-Koroaren antzerako kantaldiz hasten da, eleberraren egitura polifonikoa eta poliritmikoa girotzeko nonbait. Baina, gertakariok Florentzia aldera jotzen dute eta han, oraina *Quattrocentoko* giroarekin nahasian aurkezten du egileak.

Bertako era majikoen irakurlea tiratzekoak dira, misterio kutsuzko tirria sortzen bait du. Baina, lastima da egile berberak gazteleraz erabiltzen duen hizkuntza era ulerkorren arauak euskaraz ez betetzea, zeren aintzinakoa klasikotarik zerbait jakin beharrez gainera eleberriko zenbait parte bizpahiru aldiz irakurri beharrezkoak dira haria jarraituz ulertuko bada, edo lehenagoko zerbaiti oratuz aitz aldiz uneak etenaz jarraitu behar. Hala ere, seigarren zerbaiti hontan, poemak besteetan bezala izkutuzko misterioak barna garamatza, zerbait erakutsiko ez erakutsiko, irakurleagan interesa sortzen duelarik, baina gutunak entelegarriagoak dira. Eta, hala hola helduko gara laberintoetan zehar, polifonia eta poliritmiako eleberraren hondarrera, azken lerroetan Belatzen baratzeak argibidetzat existentzialismo kutsudun honako esaldi hau agertuz: «Bakharrik goitituko dira' Uranora goititzekotz Pneumatozko hegaladak dituztenak». Eta, behar bada hor dago literaturgintza honen giltza ere.

J. S. M.